

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Errealitate Sozialaren Behatokiak Europako mailan berritzaile den webgune berri bat aurkeztu du

*Web-orriak gardentasunaren xedea betetzen du, orain arte argitaratutako ez zeunden Gizarte Eskubideen Departamentuko datuak argitaratzean*

Ostirala, 2018.eko abenduak 28

Errealitate Sozialaren Behatokiak bere webgunea berritu du guztiz, orain berrikuntza teknologiko handia du eskualde eta Europako mailan. Webguneak gardentasunaren xedea ere betetzen du Nafarroako herritarrentzat argitaratu gabeko Gizarte Eskubideen Sailean datuak argitaratzean.

Webgune berria, <https://www.observatoriorealidadsocial.es/>, Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren zuzendari nagusiak, Patxi Tuñón, eta Errealitate Sozialaren Behatokiaren zerbitzu-zuzendariak, Antidio Martínez de Lizarrondo, gaur aurkeztu dute

Aurkeztako webgunea nahiko berritzaile da Europar eta eskualdeko mailan, Gizarte Eskubideen alorrean kalitatezko informazio dokumentala bateratzen baitu, eta Errealitate Sozialaren Behatokiak kudeatzen dituen adierazle eta datu nagusiak erakusten ditu publikoki, ikerketa sozialarentzat eta erabakiak hartzeko ezinbestekoak baitira. Dokumental Zentroa, ikuspuntu ezberdinetik azterketa eta datuen bistaratze grafikoa elkarrekin osagarri diren tresna dira, antzeko helburuak baitituzte. Enplegu edo Etxebizitza zerbitzuak eta zerbitzu sozialak erabiltzen dituzten pertsoneri informazio baliagarria erraztu nahi die, baina baita ere profesionaleri, hiritarrei eta esparru honetako erakunde pribatu eta publikoei.

Webgune hau, Mozilla, Chrome eta Explorer Edge nabegatzaileentzat optimizatuta dago eta honako edukiak dauzka:

- '[Dokumentazio Zentro](#)' bat, gizarte, enplegu eta etxebizitza zerbitzuetan espezializatutako liburutegi birtuala dela, ia 160.000 erreferentzia ditu, gehienak testu osoetan eskuragarri daude. Ikertzaileentzat intereseko materiala dauka (aldizkari zientifikoak, ikasketak, estatistikak ...), langile tekniko eta profesionalentzat eta interesa omen dituen beste pertsonentzat (txosten ofizialak, planak eta programak, eskuliburuak ...). Sistemak aurrez egindako bilaketa irizpide eta iragazkietan oinarritutako erreferentzien esportazio automatikoa ahalbidetzen du.

- Politika sozialaren arloan, Europar Batasunaren, Estatuaren,

Autonomia Erkidegoen eta Nafarroako Foru Erkidegoaren araudiak dituen [legedia datu basea](#), arau ezberdinak estaltzen dituena. Horrez gain, Nafarroako eta Estatuko komunikabide nagusietan argitaratutako egungo gai nagusiak biltzen dituen [hemeroteca](#) du. Albisteen atal hau egunero eguneratzen da eta albisteen testu osoak ikusteko aukera ematen du, jabetza intelektualeko arauak errespetatuz.

-[Datu banku](#) bat, eta mapen, grafikoen eta taulen bidez bistaratze grafikoa eskaintzen duten adierazleak. Adierazleak Tableau aplikazio informatikoaren bidez gaitzen dira. Programa honek aukera ematen du, besteak beste, ikusmenaren erakargarritasuna eta analisi aukera handiak (interaktibitate maila handia du, erabiltzaile bakoitzak interesatzen zaien informazioa ateratzeko, datuen konparazioa, eboluzio grafikoa, eta abar); erabilgarritasun erraza eta aldakortasuna (programak aukera ematen du informazio ugari biltzeko, kontrol panel bakoitzean eta formatu desberdinetan, ezarritako gaikako unitate bakoitzeko).

Era berean, Behatokiak sortutako [ikerketak eta azterketak](#), enpleguaren, mendekotasunaren, ezintasunaren, integrazio sozialaren, haurtzaroa eta familiaren, immigrazioaren, adinekoen eta etxebizitzaren alorretakoak, modu homogeneoan aurkezten dira.

Gaitzen den beste funtzio bat hau da: herritarrek webgunean aurkitzen ez dituzten Nafarroako eskubide sozialei buruzko datuak Behatokiri zuzenki eskatzeko aukera dute, web-orri honen bidez.

Webgune honetan, langabeziagatiko, kontratazio eta mendekotasunaren inguruko hilabeteko datuak gaituta daude lehen aldiz, adierazle esanguratsu batzuk era automatizatuan ateratzeko aukerarekin, lurralde eremu txikienean (esate baterako, udalerriak, Oinarriko Gizarte Zerbitzua edo besteak). Horrez gain, adierazle berriak eraiki dira, hala nola, epe luzeko langabezi tasak, langabezi kopurua, eta orain arte ez zeunden homogeneizatuta grafikoki Autonomia Erkidegoen eta Europar Batasunaren datu konparatiboak aurkezten dira ere.

## **Behatokia**

Errealitate Sozialaren Behatokiaren Zerbitzua, Gizarte Eskubideen Departamentuari atxikia, 128/2015 Foru Dekretuak sortu zen, abuztuaren 28koa, eta ikerketa aplikatuko esparru materialean ariketa praktikoak eta ebaluazioak egiten ditu, gizarte zerbitzuen, enpleguaren eta etxebizitzaren politika publikoen ebaluatzea, baita gizarte-eraldaketaren eta gizarte-arazoaren prozesuen azterketa ere. Funtzio horiek gauzatzeko, funtsezkoa da dokumentazio azterketa lana, estatistiketik eta datu-iturrietik adierazleak erauzketa egokia burutzea eta, halaber, horien bistaratze grafikoa lortzea, langile teknikoek ulertu ahal izateko eta, ere, herritarrek. Web –orria honetan bildutako informazioa: <https://www.observatoriorealidadsocial.es/>.